



Azken urteetako euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren azterketa deskribatzailea

**Iñaki Martínez de Luna, Estibaliz Amorrortu,
Maria-Jose Azurmendi, Jean-Baptiste Coyos, Jone Miren
Hernández, Lionel Joly, Inma Muñoa, Pablo Sotés
eta Belen Uranga**

BAT Aldizkariko Argitalpen Batzordea
kluster@soziolinguistika.org

Laburpena. 2007. urtetik hasi eta gaur egun arteko Euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren berri eman nahi izan dugu artikulu honetan, helburu horrekin bildutako 175 fitxa tekniko labur baliatuz. Nolakoa da euskal ikerkuntza soziolinguistikoa? Zer pisu du? Zertaz dihardu? Ikerketa mota ezberdinak non egiten dira? nork egiten ditu? Paradigma zientifiko petoari jarraitzen diote ala ikuspegi aplikatukoa da beren bulkada? Gisa horretako galderei erantzutea bilatzen dugu ahalegin honetan. Horretarako *euskal ikerkuntza soziolinguistikoaz* ari garelarik, euskarari lotutako ikerketaren paradigma zientifikoan – akademikoan edo aplikatuan kokatzen diren ahaleginak aintzat hartu ditugu, horiek hizkuntzaren corpusari zein statusari zuzenduak direlarik. • **Hitz-gakoak:** *soziolinguistika, ikerkuntza, corpusa, estatusa.*

Abstract. This article sets out to report on Basque sociolinguistic research from 2007 up to the present day by using 175 short technical records gathered with this aim in mind. What is Basque sociolinguistic research like? How much weight does it have? What does it deal with? Where are the different types of research conducted? Who does it? Do they follow a real scientific paradigm or are they driven by an applied perspective? In this article we will be endeavouring to answer questions of this type. So as we are dealing with Basque sociolinguistic research, we will be taking into consideration the efforts to place it in the scientific -or academic or applied- research paradigm linked to the Basque language as they are geared towards the corpus and status of the language. • **Key words:** *sociolinguistics, research, corpus, status.*

HASI-MASIAK

I

Euskal ikerkuntza soziolinguistikoa nolakoa da? Zer pisu du? Zertaz dihardu? Ikerketa mota ezberdinak non egiten dira, nork egiten ditu? Zeinek edo zeintzuk bultzatzen dituzte? Ikerketa horiek badute bide iraunkorrik ala uneko jakin-minari erantzutea bilatzen dute? Paradigma zientifiko petoari jarraitzen diote ala ikuspegi aplikatukoa da, batez ere, beren bulkada? Gisa horretako galderei erantzutea bilatzen dugu ahalegin miatzaile honetan.

Horretarako, 2007an edo hortik aurrera burututako ikerlanen zein gaur egun -2013an- abian dauden berri jasotzen saiatu gara. Guztira, 175 ikerlanen erreferentziak fitxetan bildu dira¹. Bilduma osatzeko lagundu diguten pertsoneri esker, gure eskuetara iritsitako erreferentziak oso baliotsuak izan zaizkigu. Hala ere, jakin badakigu burutu diren lan guzti-guztiak bertan jasota ez daudela.

Patxi Juaristik zenbaki honetan duen artikuluan bertan aitortzen du euskal soziolinguistikaren ikerlerro garrantzitsuenak ezagutzea ez dela erraza: “azken lau hamarkadetan ikerketa asko egin direlako, gai asko jorratu direlako eta, gainera, diziplina desberdinetatik...”. Arrazoi berberak zaildu egiten digute hemen dugun xedea. Egoera ezagutzeko oztopo horiek beraiek are premiazkoago bihurtzen dute bilduma honekin bete nahi dugun helburua: euskal ikerkuntza soziolinguistikoan egiten ari denaren berri ematea, horren ekoizpena ezagutaraztea eta jendarteratzea, ezagutzaren zabaltze horrekin, beste ikertzaileei zein balizko erabiltzaileei ikerlanen fruituak baliatzeko parada areagotuko zaielakoan.

Argi dago hemen zerrendatutako ikerketez gain beste hainbat egon badaudela, guri ezezagun zaizkigunak, halakoetara iristeko gure ezintasuna tarteko. Hortaz, ahaleginaren mugak ere hasiera hasieratik aitortu behar dira, eta bilduma honek hutsuneak dituela ohartarazi behar dugu, gabezia horiek zein / zenbat diren zehatz-mehatz ezagutzerik ez dugun arren.

Azterketa honen jomuga honako hau da: *euskal ikerkuntza soziolinguistikokoaren* izaera eta azken urteotako bilakaera ezagutzea, azaletik bada ere. Aurrera egin aurretik argitu behar dugu *euskal ikerkuntza soziolinguistikoaz* zer ulertzen dugun. *Euskal* adjektiboarekin esan nahi da aintzat hartuko dugun ikerkuntza euskarari lotutakoa dela. *Ikerkuntza* aipatzean, hizkuntza horren inguruko jakin-mina asetzeko paradigma zientifikoan —akademikoan edo aplikatuan— kokatzen diren ahaleginak aintzat hartu ditugu, horiek hizkuntzaren *corpusari* zein *statusari* zuzenduak direlarik.

Pauso bat gehiago emanaz, esan dezagun *soziolinguistika* terminoaren esanahia finkatzeak zailtasun nabarmenak dituela. Horretarako, bi

**Honekin bete
nahi dugun
helburua: euskal
ikerkuntza
soziolinguistikoan
egiten ari
denaren berri
ematea, horren
ekoizpena
ezagutaraztea eta
jendarteratzea,
ezagutzaren
zabaltze
horrekin, beste
ikertzaileei zein
balizko
erabiltzaileei
ikerlanen
fruituak
baliatzeko
parada
areagotuko
zaielakoan.**

**Soziolinguistika:
Hizkuntza bere
testuinguru
sozialean
aztertzen duen
zientzia.**

**Soziolinguistika:
gizartearen eta
hizkuntzaren
arteko
elkarreragina
aztertzen du.**

ikuspunturi errepara dakieke: jakintza arlo horretaz arduratzen diren diziplinetakoari eta arlo horretan jorratzen diren ikergaiei. Bi ikuspegi horiek hizpide hartuko ditugu hurrengo lerrotan.

SOZIOLINGUISTIKAREN EREMUA

I

Soziolinguistikak bere baitan zer hartzen —zer hartu behar— duen argitu gabeko eztabaidagaia da. Auzi horretaz badaude gurean lan aipagarri batzuk eta, argi bila, horietako gutxi batzuetara -ezagutzen ditugun berrienera- jo dugu. Kronologikoki aipatuta, Maria-Jose Azurmendiren *Psicosociolingüística* izenekoak dugu lehenbizikoa (Azurmendi, 1999). Beste bi lan gehiago, hamaika urte beranduago eta data bertsuan argitaratuak dira: bata, *Soziolinguistika Hiztegia* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010) eta, bestea, *Soziolinguistika Eskuliburua* (Zarraga et al., 2010).

Azurmendik, lengoaiaren gizarte-psikologia eta alor horri atxikitako diziplinartekotasuna sistematizatzeko ahaleginetan, psikosoziolinguistikaren lau diziplina-inudi aipatzen ditu: a) Linguistika, zeina hizkuntzarena, lengoaiarena eta jardun linguistikoarena izan daitekeen; b) Lengoaiaren psikologia eta psikolinguistika; c) Lengoaiaren soziologia eta soziolinguistika; d) Gizarte psikologia (Azurmendi, 1999: 126). Autore honen ustez, beraz, *soziolinguistika* hizkuntzaren gizarte ikuspegiari lotua dago, era horretan linguistikatik -edo hizkuntzalaritzatik-, psikologiatik eta gizarte psikologiatik bereiziz.

*Soziolinguistika Hiztegia*ik, bestalde, honako definizio hau dakargiku:

Soziolinguistika: Hizkuntza bere testuinguru sozialean aztertzen duen zientzia. Diziplina honen aztergaiak dira, besteak beste, egitura eta faktore sozialek hizkuntzan duten eragina, hizkuntzaren funtzio sozialak, hitzunek faktore sozialen arabera dituzten hizkuntza-erabilerak, joerak eta jarrerak, hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza, eta hizkuntza-bariazioa. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 57)

Eta, bestalde, *Soziolinguistika Eskuliburuak* honako definizioa ematen du:

Soziolinguistika: gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarreragina aztertzen du. Bi soziolinguistika ezberdin bereiz daitezke: aztergai nagusia hizkuntza bera duena, bata, eta hizkuntza entitate sozial moduan hartzen duena, bestea. Lehenengoa hizkuntzalaritzatik hurbilago dago; bigarrena, aldiz, soziologiatik. (Zarraga et al., 2010: 37, 380)

Alegia, badago alde aipagarria soziolinguistikaren bi definizio horien artean, izan ere, diziplinaren aztergaitzat lehenengoak *hizkuntza bere testuinguru sozialean* jotzen badu, bigarrenak, aldiz, *gizarte eta hizkuntzaren arteko elkarreragina* hartzen du aintzat.

Azurmendik ere Soziolinguistika Eskuliburuak aipatzen dizkigun soziolinguistikaren bi norabide berezitu horiek azpimarratzen ditu, baina ez ditu bi-biak soziolinguistikaren baitan kokatzen. Alegia, Zarragak ez bezala, soziolinguistika kontzeptua gordetzen du *hizkuntzalaritzatik hurbilago* dagoen ikuspegiarentzat eta, aldiz, *soziologiatik* gertuago dagoen bestea *lengoiaren soziologia* izendatzen du. (Azurmendi, 1999: 43-44)

Nahasketa horrezaz ohartarazi nahirik edo, *Soziolinguistika* Hiztegiak esanahien inguruko zehaztasunak ematen dizkigu *Hizkuntzaren Soziologia* definitzerakoan:

Hizkuntzaren Soziologia: Diziplina soziolinguistikoa, gizarteak hizkuntzarekin duen harremana aztertzen duena. OHARRA: Askotan nahasi egiten dira soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia. Bereizgarri gisa esan daiteke lehenak hizkuntza aztertzen duela, testuinguru sozialarekin duen harremanaren bitartez, eta bigarrenak, berriz, gizartea duela aztergai. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 56)

1. taula. Soziolinguistika eta bere inguruko diziplinak ulertzeko moduak, jorratzen den gaiaren arabera

Jorratzen den gaia	Azurmendi (1999)	HPS ² (2010)	Zarraga (2010)
Hizkuntza testuinguru sozialean	Soziolinguistika	Soziolinguistika	Linguistikatik gertu dagoen Soziolinguistika
Hizkuntza, gizartearekin duen harremanetan	Lengoiaren Soziologia	Hizkuntzaren Soziologia	Soziologiatik gertu dagoen Soziolinguistika
Gizartea eta Hizkuntzaren arteko elkarreleragina	-	-	Soziolinguistika

Hartara, *soziolinguistika* eta bere baitako edukiak zein inguruko kontzeptu batzuk teilaratzen eta nahasten dira aintzat hartutako Azurmendi eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, batetik, eta bestetik Zarragak emandako definizio horietan.

Horrek guztiak agerian uzten ditu, beste behin, eremu horren luzezabal handia zein konplexutasuna. Hala ere, euskal soziolinguistikaren inguruko ahalegin horiek uzten diguten kontzeptuen zehaztasunik eza ohikoa da ospe handiko nazioarteko akademikoengan ere. Adibidez, Joshua Fishmanek berak Soziolinguistika eta Hizkuntzaren Soziologia sinonimotzat jo izan ditu:

“The term ‘sociolinguistics’ is often used interchangeably with ‘the sociology of language’” (Fishman 1968: 6).

Bi ikerlerro horien arteko ezberdintasuna modu horretan laburbildu zuen Hudson-ek:

Askotan nahasi egiten dira soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia. Bereizgarri gisa esan daiteke lehenak hizkuntza aztertzen duela, testuinguru sozialarekin duen harremanaren bitartez, eta bigarrenak, berriz, gizartea duela aztergai.

**Definizio
ahalegin
horietako
diferentzia
batzuetan
baliatutako
irizpidea da
hizkuntza ala
gizartea
lehenestea, zein
baino zein
garrantzitsuago-
tzat jotzea.**

“La diferencia entre sociolingüística y sociología del lenguaje es, sobre todo, una diferencia de énfasis, según el investigador esté más interesado por el lenguaje o por la sociedad, y también según su mayor experiencia en el análisis de las estructuras lingüísticas o en el análisis de las estructuras sociales.” (Hudson 1981: 15).

Ikusten denez lan leerro bat linguozentrikoagoa dugu eta bestea gizazentrikoagoa. Soziolinguistikaren autore famatuenetarikoa Labov eta bere ikerketa bariazionistak ditugu eta hizkuntzaren soziologiaren autore nagusia Joshua Fishman. Haiek ere bi ikerlerroen helburuak argitu izan dituzte. Labovek linguistikaren alorrean kokatzen du bere burua; are gehiago, bere ustez linguistikaren iker eremuaren helburua hizkuntzaren erabilerak izan beharko lirateke eta ez hizkuntza baten maila hipotetiko bat besterik gabe, izan ere hizkuntzaren oinarri nagusia eta ezinbestean kontuan hartu behar dena gizartea baita. Berak dioenez, “I have resisted the term sociolinguistics for many years, since it implies that there can be a successful linguistic theory or practice which is not social” (Labov 1972: xiii). Fishmanek bere aldetik hizkuntzaren soziologiaren diziplinan alde soziologikoa azpimarratu nahi izan du. Ondoko bi pasarteetan argi gelditzen da Fishmanen pentsamendua soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia ezberdintzeari dagokionez:

“There are three reasons why I consciously refer to ‘The sociology of language’ (although I do use the adjectival form ‘sociolinguistic’), rather than to ‘sociolinguistics’, as I have at times in the past: (a) to draw to it greater attention from sociologists, (b) to make linguists realize that they should beware of their ignorance of the science of social behavior, and (c) to stress that the total enterprise is not for the purpose of enriching or reforming or revolutionizing linguistics, but for the purpose of understanding and influencing language in society as such.” (Fishman 1972: 154-155).

The designation ‘sociology of language’ is often used in conscious distinction to the designation ‘sociolinguistics’. The intent of this distinction is commonly relevant both to personal disciplinary orientation as well as to the level of data-aggregation preferred by the researcher. From a disciplinary point of view, the designation ‘sociology of language’, rather than ‘sociolinguistics’, implies a greater concern with sociology than with linguistics, on the one hand; and a greater preference for higher levels of behavioral data collection (‘higher’ in the sense of more abstract, i.e., further removed from directly observed phenomena) and for higher levels of data-aggregation on the other hand.” (Fishman 2008: 3).

Definizio ahalegin horietako diferentzia batzuetan baliatutako irizpidea da hizkuntza ala gizartea lehenestea, zein baino zein garrantzitsuagoatzat jotzea. Gure kasuan, zaila da argitzea aztergai ditugun 175


ikerlanen planteamenduek euskara ala gizartea azpimarratzen duten. Horregatik, konponbide gabeko auzia saihestuz, hemen soziolinguistikaren adierarik zabalena baliatuko dugu, *Soziolinguistika Eskuliburuak* zedarritzen duen eremuari jarraiki; alegia, “gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarreragina aztertzen” duten lanak dira gure jomuga. Adiera zabal horrek lagunduta, euskara/gizartea kontzeptu-bikotean sartzen diren aukera guztiak hartzen dira aintzat eta, horrela eginez, eremuaren ikuspegia zabaltzen da eta bildutako 175 ikerlan guztiek badute lekua.

SOZIOLINGUISTIKA INGURUKO DIZIPLINA AKADEMIKOAK

I

Soziolinguistika kontzeptuaren inguruko zehaztasunik ezari gehitu behar zaio izen horren pean edo inguruan kokatzen den diziplinen ugaritasuna eta horiek mugatzeko zein antolatzeko dagoen adostasun falta. Adibidez, Henry Boyer (1996) eta Nekane Jausororen (2000) lanaketa baliatu eta moldatuz, hona hemen *Hizkuntza/Hiztuna/Gizarte* hirukoa kontuan hartzen duten diziplina akademikoen mapa, berriz ere soziolinguistika eremuak duen konplexutasunaren isla delarik (Martínez de Luna, 2012):

1. irudia. Soziolinguistika inguruko diziplinak



Iturriak: Boyer (1996) eta Jausoro (2000) moldatua-

Orain arte esandakoak islatzen ditu gizarte/hizkuntza binomioak mugatzen duen eremuko ikerkuntzan dagoen aberastasuna zein konplexutasuna. Xavier Vilak dioenez, eremu horretan azken urteotan gertatu den ikerkuntzaren ugaritasunak ekarri digu, ezinbestez seguru asko, ikerketaren sakabanatzea eta, horren ondorioz, diziplina bakarra osatzeko aukera lurrindu da.

**Gure bildumako
ikerlanek
lehenetsi dituzten
lehenbiziko bi
gaiak euskararen
erabilera eta,
hori areagotu
dadin, abiatzen
diren hizkuntza-
politikak zein
plangintzak dira:
38 eta 37
ikerlanekin,
hurrenez hurren.**

Boyer³ eta Jausorok landutako eskema horretan diziplina-inude ezagun batzuk (Gizarte Psikologia, Pedagogia, Etnologia, ezkerraldean, eta Antropologia, Filosofia zein Historia, eskuinaldean) hartzen dira esker-eskuin ardatzean, eta lengoaiaren dimentsio mikrotik soziologiaren maila makrora dagoen tarte goitik beherako ardatzean. Horrela mugatutako espazioan, soziolinguistikari dagozkion hainbat diziplina txertatu dira.

Soziolinguistikaren mugak finkatzeko saiakera anitz egin dira⁴ eta albo-diziplinekin egiten diren loturak anitz dira. 1964an soziolinguistikari buruz egin ziren aurreneko mintegietatik, diziplinartekotasuna da soziolinguistikaren ezaugarri nagusienetarikoa. Ikerlerro berriak ekarpen teorikoak, metodologikoak zein praktikoak, diziplina askotatik jaso izan ditu. Beste diziplinekiko (hizkuntzalaritza, antropologia, psikologia, filosofia, etnologia, soziologia, historia...) soziolinguistikak duen irazkortasuna beste hizkuntz zientziekiko ere badu: semiotika eta testuen hizkuntzalaritza, psikolinguistika, etnolinguistika, dialektologia, hizkuntzaren soziologia, pragmatika. Azken finean, lengoaiaren gizarte funtzionamenduaren onarpena eta honen azterketa batzen dituzte diziplina guzti horiek. Diziplinartekotasun horregatik korrante ezberdinak garatu dira hizkuntzaren azterketa sozialean

Bestalde, arestian aipatu dugun *Soziolinguistika Hiztegiak* 18 sarrera jaso eta zedarritzen ditu *Soziolinguistikaren Adarrak, Eskolak eta Korronteak* izeneko atalean (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010: 55-57):⁵

2. taula. Soziolinguistikaren adarrak, eskolak eta korronteak

Demolinguistika	Interakzioaren soziolinguistika
Ekolinguistika	Kodeen teoria
Esparru edo sinonimoen teoria	Makrosoziolinguistika Mikrosoziolinguistika
Gatazkaren soziolinguistika	Soziolinguistika
Gatazkaren teoria	Soziolinguistika bariazionista
Gotopolitika	Soziolinguistika historiko
Hizkuntza-egokitzearen teoria	Soziolinguistika matematiko
Hizkuntza-geografia	Sozioterminologia
Hizkuntzaren soziologia	

Gorago aipatua izan den *Soziolinguistika Eskuliburuak*, lehen atala soziolinguistika aurkezteari eskaini eta gero, besteak horrela banatzen ditu lantzen dituzten edukien arabera: bigarrena, hizkuntza-aldakortasuna; hirugarrena, hizkuntza-ukipena; laugarrena, hizkuntza-jarrerei eta hiz-

kuntza-ideologia; bosgarrena, hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza; azkenik, hizkuntzak aztertzeo ikerketa-metodoak. (Zarraga, 2010)

Gure mugetatik harago ere, munduan barna, soziolinguistika kontzeptuaren inguruan diharduten diziplina akademikoaren ugaritasuna nabaria da; Frantziakoa kasu:

Frantzian, soziolinguistika 13 eskolatan banatzen da, Rouen-go eskolako linguistika sozialetik eta dialektologiatik, Bourdieu-k inspiratu duen erreferentzien teoriara, eskola okzitandarretik igaroz. Ondorioz, ez dago soziolinguistikaren batasunik. (Urteaga, 2007: 141)

Orain arte esandakoak islatzen ditu gizarte/hizkuntza binomioak mugatzen duen eremuko ikerkuntzan dagoen aberastasuna zein konplexutasuna. Xavier Vilak dioenez, eremu horretan azken urteotan gertatu den ikerkuntzaren ugaritasunak ekarri digu, ezinbestez seguru asko, ikerketaren sakabanatzea eta, horren ondorioz, diziplina bakarra osatzeko aukera lurrindu da (Vila, 2012: 11).

Gure bildumako 175 ikerlanetan ere denetik aurki daiteke *Hezkuntza Eleanizdunetik Hizkuntzalaritzara, Soziolinguistika Matematikotik Hizkuntzen Soziologiara*, tartean, adibidez, *Psikologia Soziala* edota *Bariazionismoa* ere ibilbide horretan aurkituz. Baina, sailkatze horretarako egileek baliatutako irizpideek ez diote eskema bakar bati jarraitu eta, horregatik, antzeko edukietarako erabiltzen diziplinen izendapenak ez datoz bat gehienetan.

Horregatik, hemen kontuan hartutako 175 ikerlanak diziplinaren ikuspegitik aztertzeari interesgarri deritzogun arren sailkapena oso prekariora eta guztiz diskutigarria litzateke, eta egileek beraiek zalanztan jar litzakete horretarako baliatutako irizpideak. Hortaz, amore ematen dugu lan horiek guztiak landuak izan diren diziplinaren arabera sailkatzeko intentzioan. Ez dago, erronka horri aurre egin eta hortik arrakastatsu ateratzea bermatuko lukeen gutxieneko baldintzarik.

JORRATUTAKO IKERGAIK


Aipatu ditugun aberastasun —edo, zergatik ez, nahasmen— kontzeptual eta akademikoak gutxi balira ere, zientzia-eremu horretan jorratu ohi diren gaiak ere ugariak dira. Horrekin, ikerlanen azterketa eta sailkapen ahaleginen konplexutasuna areagotzen da. Hemen bildutako azterlanetatik askok, gai bat baino gehiago jorratzen dute, *euskal ikerkuntza* soziolinguistiko lanen edukiak gehienetan ez direlako monografikoak izaten eta, hortaz, horien sailkapena zaildu egin zaigu. Hala ere, gaien arteko teilakatzea edo gainjartzea ezinbestekoak

**Lan horietako
batzuen helburua
—edo, hobeto,
helburu nagusia
euskararen
normalizazioa
baino ez dela
zalanztan jar
litekeen arren, ez
dugu arrisku
handirik hartzen
euskal
ikerkuntza
soziolinguistika-
ren jomuga edo
lehentasun
nagusiak
euskararen
berreskurapena
eta
normalizazioa
direla
baieztatzen
badugu.**

**Euskara
hizkuntza
gutxitua den
aldetik,
ulergarria da
“nagusi diren
iritzi, ohitura eta
erreferentziak”
bere iraupen
osasuntsuarekin
harremanetan
egotea. Alegia,
hemengo lanketa
soziolinguistiko-
aren ardatza
bertako
hizkuntza
gutxituaren
normalizazioaren
inguruan eraikia
izatea. Joera hori
antzeko ataka
larrian dauden
beste hizkuntzen
lanketa
soziolinguistikoan
ere agertzen da.**

direla aintzat hartuz, ez dugu amore eman gure asmoetan eta bildutako ikerlanak horrela multzokatu ditugu:⁶

2.irudia. Euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren emaria, ikergaiaren arabera (2007-2013)



Gure bildumako ikerlanek lehenetsi dituzten lehenbiziko bi gaiak euskararen erabilera eta, hori areagotu dadin, abiatzen diren hizkuntza-politikak zein plangintzak dira: 38 eta 37 ikerlanekin, hurrenez hurren.

Mota horietako lanen ugaritasunak islatzen ditu, oro har, euskararen aldeko gizarte mugimenduak dituen kezka nagusiak. Hirugarren gairik jorratuena jarrera/motibazioen dimentsioarena da (25 ikerlan). Kezka edo ardura berari erantzun nahi dion beste ikuspegi gisa uler daitekeelakoan gaude; hots, hizkuntza erabiltzeko dauden edo bultzatu behar diren ezinbesteko osagai moduan. Ez dabil urruti, ez, enpresa munduaz eta merkataritzaz arduratzen diren laugarren blokeko gaiak ere (21 ikerlan). Bestela esanda, horiek guztiek lantzen dituzten gaiei erreparatuta, ikerlan gehienak euskara normaltzeko ahaleginek gidatuak dira antza, eta ildo beretik omen doaz maiztasun gutxiagorekin agertzen diren beste lan batzuk ere, hala nola ume eta gazteei (15), egoera orokorrari (15), hizkuntza- transmisioari (5) eta -paisaiari (3) eskainitakoak.

Ikerlan horiek guztiek osatzen duten bildutakoen portzentajea 91% da. Hortaz, lan horietako batzuen helburua —edo, hobeto, helburu nagusia— euskararen normalizazioa baino ez dela zalantzan jar litekeen arren, ez dugu arrisku handirik hartzen euskal ikerkuntza soziolinguistikaren jomuga edo lehentasun nagusiak euskararen berreskurapena eta normalizazioa direla baieztatzen badugu.

Hori izan liteke, hain zuzen ere, *euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren* berariazko ezaugarri edo marka bat. Izan ere, Urteagak ohartarazten digun bezala, lekuan lekuko berariazko soziolinguistika bilatzeko ahalginaren funtsa zalantzan jar badaitekeen arren, ezin da xede horren balioa erabat ukatu. Alegia, nazioarteko dinamika orokor eta partekatu batez gain, badira ere herrialde bakoitzean ikuspegi propioak jorrazteko zenbait ezaugarri:

...herri bateko soziolinguistikataz hitzegiteak ez duela zentzu handirik. Hain zuzen ere, Kebek, Suiza, Katalunia, Euskal Herri ala Frantziako ikerlariek munduan zehar plazaratzen diren lanak irakurtzen eta eztabaidatzen dituzte. (...) Hala ere, bi faktorek trukaketa horiek mugatu dituzte, batetik, hizkuntzaren oztupoak zeren artikulua eta liburu frango ingelesez eta, maila txikiago batean, frantsesez idatziak daude eta, bestetik, herri bakoitzean nagusi diren iritzi, ohitura eta erreferentziak, nahiko ezberdinak izateaz gain, egonkorrak dira. (Urteaga, 2007: 151-152)

Euskara hizkuntza gutxitua den aldetik, ulergarria da “*nagusi diren iritzi, ohitura eta erreferentziak*” bere iraupen osasuntsuarekin harremanetan egotea. Alegia, hemengo lanketa soziolinguistikoaren ardatza bertako hizkuntza gutxituaren normalizazioaren inguruan eraikia izatea. Joera hori antzeko ataka larrian dauden beste hizkuntzen lanketa soziolinguistikoan ere agertzen da, halaber, Zarragak dioskun bezala:

...tokian tokiko bibliografiari begiratuta, leku batzuetan hizkuntzaren aldagarritasunari begira dauden lanak baino ez dira onartzen soziolinguistikatzat, baina beste zenbait lekutako tradizioan, soziolinguistikak askoz ere eremu zabalagoa hartzen du. Horixe da, hain zuzen ere, Euskal Herrian, Katalunian eta Kanadan gertatzen dena. (Zarraga, 2010: 38)


IKERKETEN SUSPERTZAILEAK

Ikuspegi honetatik bilatzen da ikerketa nork edo zein erakunde motak eraginda burutu den ezagutzea. Alegia, jakitun izatea ikerketari nork eman dion bulkada edo noren eraginez jarri den abian. Asmoa ez da, beraz, lana zein ikerlarik edo taldek burutu duen edo lantzen ari den jakitea. Gure kasuan, aurkitutako 175 ikerlanak suspertzaile motaren arabera banatu ditugu, emaitzak honakoak izanik: Eremu akademikoak 117 ikerlan (%67); Herri-Administrazioak 42 ikerketa (%24); Herri-elkartek, enpresek eta bestelako erakunde motek, 16 (9%).

***Ikerketa
akademikotzat jo
ditugu ohiko
paradigma
zientifikoaren
arabera
diseinatuak diren
ikerlanak: teoria
batetik
eratorritako
hipotesiak
kontraste
enpirikoaren
bitartez berrestea
ala gaitzestea
bilatzen dutenak.***

Bestalde, ikerketa aplikatutzat jo ditugun ikerlanak, zorroztasun osoz eginak izan daitezkeen arren, ez daude batez ere teoria baten arabera planteatuta eta hipotesiren bat berresteko edo ezeztatzeko diseinatuta. Errealitate jakin baten ezagutza bilatzen dute, sarri helburu aplikatu bat lortze aldera.

3.irudia. Ikerketen suspertzaile-motak (%tan)



Unibertsitate edo akademia eremuetan aurkitutako ikerlanek gehien-goia osatzen dute, beraz, zerrendatutako 117 erreferentziekin, hain zuzen. Horien banaketa, honakoa da: Euskal Herriko Unibertsitatean, 88 ikerlan; Mondragon Unibertsitatean, 11; Nafarroako Unibertsitate Publikoan, 6; Université de Pau et des Pays de l'Adour-ean (IKER ikerketa-zentroan), 2; eta Deustuko Unibertsitatean, 2. Unibertsitatez kanpo, baina, arestian esan bezala, alor akademikoan kokaturik, Euskaltzaindian beste 8 ikerlan zerrendatu dira.

Herri-administrazioek bultzatutako 42 ikerlanak, era honetan banatzen dira: Eusko Jaurlaritzak 18 ikerlan, Nafarroako Gobernuak 1, Gipuzkoako Foru Aldundiak 7 eta, azkenik, hainbat udalek beste 16 ikerlan.⁷

Herrigintzak edo, are zehatzago, euskalgintzak sorturiko elkarte edo erakundek beste 16 ikerlan bultzatu dute, horrela banatuta: Soziolinguistika Klusterrak 8, aholkularitza-enpresek⁸ 3, UNESCO Etxeak 2, Arrasate Euskaldundu Dezagun-ek 1, Goierriko Hedabideak E.M.-k 1, eta EIZIEk 1.

Begira diezaigun jarraian ikerlan bakoitzak izan duen asmo edo jomuga nagusia izaera akademikoa den ala aplikatua den.

IKERLAN AKADEMIKOAK VERSUS IKERLAN APLIKATUAK

I

Ikerketa akademikotzat jo ditugu ohiko paradigma zientifikoaren arabera diseinatuak diren ikerlanak: teoria batetik eratorritako hipotesiak kontraste enpirikoaren bitartez berrestea ala gaitzestea bilatzen dutenak. Ikerkuntza mota honekin zer esan nahi dugun argitzeko Soziolinguistika Eskuliburuaren definizioari erreparatu diogu:

Soziolinguistika akademikoa: hizkuntza-egoera edo hizkuntza-errealitate bat ezagutzea du helburu, betiere, ezagutza horrek arlo teoriko, epistemologiko edota metodologikoan ekarpen bat egingo duelakoan. Beraz, soziolinguistika akademikoak ezagutza elikatu nahi du eta esku-hartzea ez da, teorian, bere

helburu zuzena. (...) Ereduen sorkuntza, nozio edota kontzeptu berrien proposamena edo ikerkuntzarako tekniken inguruko berrikuntzak zabaltzea izan daitezke soziolinguistika akademikoaren helburuak. (Zarraga et al., 2010: 324-325).

Bestalde, *ikerketa aplikatutzat* jo ditugun ikerlanak, zorroztasun osoz eginak izan daitezkeen arren, ez daude batez ere teoria baten arabera planteatuta eta hipotesiren bat berresteko edo ezeztatzeko diseinatuta. Azken buruan, beren helburu nagusitzat ez da ekarpen teoriko edota metodologikoa egitea. Aldiz, errealitate jakin baten ezagutza bilatzen dute, sarri helburu aplikatu bat lortze aldera. Batzuetan, ikerlan mota horren bulkada izango da hizkuntza-errealitate jakin batez arduratzen direnen jakin-mina asetze hutsa. Bestetan, interbentzio-asmo bati lotua egongo da; alegia, hizkuntza-politika edo hizkuntza-plangintzaren bat abian jartzeko asmoari atxikia. Horregatik, multzo honetan sartutako lanak, askotan txosten tekniko gisakoak izango dira. *Soziolinguistika Eskuliburuak* horrela definitzen ditu halako ikerlanak:

Soziolinguistika aplikatuak hizkuntza-egoera edo hizkuntza-errealitate batera hurbiltzea du helburu, betiere, hortik sortutako ezagutza, hausnarketa zein ondorioak (hizkuntza gutxituen kasuan, behintzat) berreskurapena edota hainbat joeraren aldaketa bideratzeko erabiliko direlakoan. Helburu hori dute arlo horretan osatutako teoriak eta berari lotutako lan-ildo edota proposamenek. Esate baterako, plangintza bat diseinatzeko eman beharreko pausoak, burutu beharreko lanak eta bete beharreko helburuak soziolinguistika aplikatuaren kezkak dira. (Zarraga et al., 2010: 325).

Horrela azalduta, ematen du ikerlanen izaera akademikoa edo aplikatua den bereiztea erraza izango dela, baina hori ez ohi da horrela gertatzen. Ikerlanen izaera neurriren batean lotuta egon daiteke azaldu berri dugun suspertzaile motari. Hala ere, harreman hori ez da mimetikoki beteko; adibidez, eragile akademikoaren lana erakunde baten asmo aplikatuari erantzutea bilatzen duenean. Bestetan, ikerlariak berak komunitate soziolinguistiko zientifikoari ekarpenen bat egitea ez ezik, euskararen egoera hobetzea ere bilatuko du aldi berean. Gainera, hizkuntza eremuan diharduten erakundeek —administrazio, enpresa edo euskara-elkarteek—, arlo batean eragin aurretik horren ezagutzen sakontzea bilatu ohi dute. Hortaz, zalantzazkoa izan daiteke lanaren suspertzaileek zein egileek xede bietako bat -akademikoa ala aplikatua- duten, ala biak uztartzeko asmotan dabiltzan:

Hala ere, praktikan, zaila izaten da teoritik aplikaziora salto ez egitea eta, alderantziz, interbentzio gunetik teoriara ez pasatzea. (Zarraga et al., 2010: 325).

Bildu ditugun mota akademikoko ikerlanak 122 dira guztira (ikerlanen %70).

Bildu diren mota aplikatuko ikerlanak 53 dira guztira (%30).

**Harrigarria gerta
daiteke 117
ikerlan
akademiko
horietatik 16
herri-
administrazioan
eta 7 bestelako
erakundeetan
suspertuak
izatea. Mota
aplikatuko 53
ikerlanetatik 18
unibertsitate-
eremuan garatu
izanak erakusten
du, seguru asko,
giro
akademikoko
ikerlari batzuek
gizartearekiko
duten
hurbiltasuna,
behinik behin
euskararen
soziolinguistikari
dagokionez.**

Korapiloa askatzeko tira egin daitekeen hari-mutur garbirik ez dagoenez, oso behin-behineko sailkapen bat osatu dugu.⁸ Horretarako, ikerketen izaera suspertzaile motekin uztartuz, taula bat osatu dugu:


3.taula. Ikerketa-motga eta suspertzaileak

Ikerketaren suspertzaile mota	Ikerketaren izaera		Guztira
	Akademikoa	Aplikatua	
Unibertsitate edo Akademia	99 (%57)	18 (%10)	117 (%67)
Herri-Administrazioa	16 (%9)	27 (%15)	42 (%24)
Besteak	7 (%4)	8 (%5)	16 (%9)
Guztira	122 (%70)	53 (%30)	175 (%100)

Bildu ditugun mota *akademikoko* ikerlanak 122 dira guztira (ikerlanen %70): Euskal Herriko Unibertsitatean 75; Mondragon Unibertsitatean 6; Nafarroako Unibertsitate Publikoan 6; Université de Pau et des Pays de l'Adour-ean (IKER ikerketa-zentroan) 2; Deustuko Unibertsitatean 2; Euskaltzaindian 8; Eusko Jaurlaritzan 16; EMUN kooperatiban 3; Soziolinguistika Klusterrean 3; azkenik, Unesco Etxean 1.

Bildu diren mota *aplikatuko* ikerlanak 53 dira guztira (%30). Horietatik 18 unibertsitateetan egindakoak⁹; beste 17 hainbat lan udalek bultzatutakoak; 7 Gipuzkoako Foru Aldundiak; 5 Soziolinguistika Klusterrak; 2 Eusko Jaurlaritzak; 1 Nafarroako Gobernuak; 1 Arrasate Euskaldundu Dezagun elkarteak; 1 Goierriko Hedabideak E.M.-k eta, azkenik, 1 EIZIEk.

4. irudia. Ikerketaren mota akademikoa edo aplikatua, erakunde suspertzailearen arabera



Izaera akademikoa gailentzen da eta, espero zitekeen bezala, hori Unibertsitate giroetako —Euskaltzaindia, barne— bulkadari esker izan da batez ere. Hala ere, ikerlanen dimentsio akademikoa eta aplikatua ez daude erakunde suspertzaileen izaerarekin erabat lerrotuta; alegia, ikerlan aplikatuak unibertsitateetan ere garatu dira eta, aldiz, izaera akademikokoak unibertsitatez kanpo.

Izaera akademikokoak diren eta, aldi berean, unibertsitatean landuak diren 117 ikerlanetatik 42 graduondokoetakoak dira. Hartara, ez ohi dira ikerlerro akademikoren batean kokatzen eta ez dira ere ikerketa akademikoko petoak, alegia ez dute bilatzen “ezagutza horrek arlo teoriko, epistemologiko edota metodologikoan ekarpen bat” egitea. Jakin-min aplikagarria asetzea bilatzen dute, nonbait, sarri askotan egileen ogibideari lotua. Lan horiek ez omen dute jarraipenik, ezta egonkortasunik ere. Unean uneko ikerlan gisa ulertuak izan behar dira, ez ikergai planifikatu bateko aleak bezala. Hala ere, euskararen ezagutza edota interbentzio soziolinguistikorako oso baliotsuak dira.

Harrigarria gerta daiteke 117 ikerlan akademikoko horietatik 16 herri-administrazioan eta 7 bestelako erakundeetan suspertuak izatea. Bestalde, mota aplikatuko 53 ikerlanetatik 18 unibertsitate-eremuan garatu izanak erakusten du, seguru asko, giro akademikoko ikerlari batzuek gizartearekiko duten hurbiltasuna, behinik behin euskararen soziolinguistikari dagokionez.

HIZKUNTZAREN CORPUSA VERSUS HIZKUNTZAREN STATUSA

I

Ikerlanek duten aztergaiari erreparatuz, bi dira egin ohi diren taldeak: hizkuntzaren statusarena eta hizkuntzaren corpusarena, bi-biak kontrajarri bezala ulertuta nonbait. *Hizkuntzaren Statusak* zera aztertzen du: “Egitura sozial jakin batean, pertsona edo hizkuntza batek besteen aldean duen lekua edo posizioa.” (*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*, 2010: 18). Aldiz, *corpusa* “...hizkuntzari berari dago lotuta, alderdi linguistikoa lantzen du...” (*Zarraga*, 2010: 239).

Hortaz, hizpide dugu, beste behin ere, *Soziolinguistikaren* bi adiera edo, nahiago bada, *Soziolinguistika* eta *Hizkuntzaren Soziologiaren* arteko bereizketaren muina. Izan ere, egile batzuen arabera, *Hizkuntzaren Corpusak* -*Soziolinguistikak* bezala- hizkuntza jorratzen du eta *Hizkuntzaren Statusak*, ordea, *Hizkuntzaren Soziologiaren* antzera hizkuntzaren gizarte baldintzak ditu hizpide.

Bildutako ikerlanak modu honetan bereizi ditugu: *Hizkuntzaren Statusak* 154 ikerlan ditu (%88), *Hizkuntzaren Corpusak* 15 (%9), eta *Hiz-*

Bildutako ikerlanak modu honetan bereizi ditugu:
Hizkuntzaren Statusak 154 ikerlan ditu (%88), Hizkuntzaren Corpusak 15 (%9), eta Hizkuntzaren Corpusak gehi Statusak, biek batera, beste 5 ikerlan (%3) dute.

**Euskarak
gizartean duen
egoera kezkatzat
duten ikerlanak
nagusi dira eremu
akademiko zein
aplikatuko euskal
ikerkuntza
soziolinguistikoan.**

kuntzaren Corpusak gehi Statusak, biek batera, beste 5 ikerlan (%3) dute. Beste 2 ikerlanek ez dute aurreko multzotan kokatze garbirik izan.


Alde handia dago, beraz, bi hurbilpen horiek *euskal ikerkuntza soziolinguistikoan* lortzen duten oihartzun mailan. Baliteke, berriz ere, hizkuntzaren statusa aztertzearen aldeko joera nabarmen hori euskal soziolinguistikak duen bulkadaren isla izatea; bestela esanda, euskara berreskuratzeke asmo eta ahaleginaren eraginez gertatzea.

Aztergai mota eta ikerketaren izaera uztartuz, zenbait datu aipagarri agertzen da:

4. taula. Aztergai mota eta ikerketaren izaera

Aztergaia	Ikerketaren Izaera		Guztira
	Akademikoa	Aplikatua	
Corpusa	15 (% 9)	0	15 (% 9)
Statusa	101 (%58)	53 (%30)	154 (% 88)
Corpusa eta Statusa	5 (% 3)	0	5 (% 3)
Bestelakoak	2 (%1)	0	2 (%1)
Guztira	122 (%70)	53 (%30)	175 (%100)

5. irudia. Ikerketaren mota akademikoa edo aplikatua, ikerketaren izaeraren arabera



Bistan da ikerketak *aplikatuak* izan edo *akademikoak* izan, gehienek *Hizkuntzaren Statusari* erreparatzen diotela: ikerketa aplikatu guztiek (53) statusa lantzen dute eta akademikoen artean 101ek *statusa* soilik eta *corpusa statusa*rekin batera beste 5.


Bestela esanda, euskarak gizartean duen egoera kezkatzat duten ikerlanak nagusi dira eremu akademiko zein aplikatuko *euskal ikerkuntza soziolinguistikoan*.

URTEZ URTEKO BILAKAERA

I

Ikerketa burutua izan den dataren arabera, 2007ko ikerlanak 15 dira, 2008koak 8, 2009koak 13, 2010ekoak 18, 2011koak 19, 2012koak 31 eta 2013an bukatutakoak 32. Beste 12 ikerlan zeuden 2013an abiatuta, hurrengo urteetan burutuak izatearen esperantzan. Beste 9 aurkitu ditugu ikerlerro egonkortu eta etengabe gisakoak eta, azkenik, 18 ikerlanen bukaera datarik ez da jaso.

6. irudia. Ikerketa kopuruak, urtez urte



Nahiz eta datarik gabeko ikerlanak ugariak diren eta, hortaz, kopuru horrek bilakaeran eragin zezakeen, ikerketek goranzko joera nabarmena erakutsi dute 2007tik 2013ra bitartean (15etik 32ra). Azken urte horretan abiatu eta hurrengo urteetan burutuak izateko zain dauden lanak ez dira horren ugariak (12); horiei gehitu behar zaie epe finkaturik ez duten lanen kopurua ere (19).

AZKEN GOGOETAK

I

Ikerlan eta ikerlerroen bilduma osatzeak lan eskerga izan den arren — Belen Urangak, *Bat Soziolinguistika* aldizkariko kudeatzaileak inork baino hobeto dakien bezala— euskal soziolinguistikarako oinarritzko ekarpen txiki deritzogu emaitzari.

Hasiera batean uste edo espero zitekeena guk geuk uste edo espero genukeena baino zabalago eta emankorrago gertatu da bilduma. Egile, lan eta ikerlari ezagunen erreferentziak ez ezik, ezagutzen ez genituen asko ere jaso ditugu.

**Euskal
soziolinguistikako
ikergai gehienek
joera urria
erakusten dute,
nazioarteko giro
akademikoetan
ohikoak diren
ikuspegi
teorikoetatik
sakon jorratuak
izateko.**

Zailtasun kontzeptualak eta bildumaren mugak ezin nabarmenagoak izan arren, esperantza badugu *euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren* panorama saio honen eskutik zertxobait hobeto ezagutzeko balekoa izango dela. Badakigu jakin, aztertutako denbora tartean burutu diren ikerlan guztiak ez ditugula bildu; mugak muga, hala ere, sinetsi nahi dugu ahalegin xume hau ekarpentxo bat badela. Hona hemen bilduma honen harira piztu zaizkigun gogoetak, puntuka azalduta:

1. Izan ere, hasiera batean uste edo espero zitekeena —guk geuk uste edo espero genukeena— baino zabalago eta emankorrago gertatu da bilduma. Egile, lan eta ikergune ezagunen erreferentziak ez ezik, ezagutzen ez genituen asko ere jaso ditugu. Hori izan da ahaleginaren lehenbiziko ekarpena; mugak muga, euskal soziolinguistikaren nolabaiteko *State of the Art* edo *Egoeraren Berri* marraztea, alegia. Euskararen inguruko kezka akademikoaren zein aplikatuaren behin-behineko mapa edo *GPSa* osatu da. Eta, jakina denez, halakoak lagungarriak dira bidaiaria bidean gal ez dadin.
2. *Soziolinguistika* kontzeptua eta bere baitako diziplinak zedarritzeko orain arte egindako ahaleginek huts egin dute, gurean zein kanpoan. Horregatik, geure buruari egin behar diogun galdera da, ea halako ahaleginetan tematzeak zentzurik ote duen, behinik behin egungo baldintza berberetan. Izan ere, kontsentsu baterako bestelako baldintzarik sortu bitartean kontzeptu hori definitu eta bere diziplinak sailkatzeko asmoarekin abian jar litezkeen saioak, oraingo oztopo eta ezintasun bertsuekin topo eginez, berriz ere antzu gertatuko lirateke. Hori ez da ulertu behar, ordea, xede horretan amore emateko proposamen gisa, baizik eta, asmo horretan tematuz gero, beste ezeren aurretik baldintza egokiagoak sortzeari lehentasuna eman beharraz ohartarazteko intentzioa. Zein lirateke baldintza berri horiek?
3. Horrek erakusten ditu *euskal ikerkuntza soziolinguistikoak* duen konplexutasun maila eta lan-ildoen hedapen handiak, ohikoak ziren diziplina-inudeen hesien gainetik bidea eginez, zeruertz berriak bilatzeko joera. Horren oinarrian bi arrazoi-mota osagarri egongo dira, seguru asko: a) diziplinartekotasuna gero eta ohikoagoa izatea ikerkuntza akademikoan; b) hizkuntza normalizazioaren aldeko lanketak eskatzen duen soziolinguistikaren baitako aniztasuna, hizkuntzaren giza eta gizarte dimentsio guztietara hedatu beharko litzatekeena.
4. Euskal soziolinguistikako ikergai gehienek joera urria erakusten dute, nazioarteko giro akademikoetan ohikoak diren ikuspegi teorikoetatik sakon jorratuak izateko. Esango genuke, gure bilduman

agertzen diren ikergaien artetik nazioarteko korrontetan gogoeta teorioetatik gehien edaten dutenak batez ere motibazio/iritzi/jarrera alorrekoak, ukipen egoerakoak, hezkuntzakoak eta bariazionismoarenak direla. Hemen zerrendatu ditugun gainontzeko gai ugariak (erabilera, politika eta plangintza, ume eta gazteak, eta abar.) ez dute nazioarte panoramika akademikoari neurri berean erreparatzen. Ausardi handiz egindako baieztapena da aurrekoa, dudarik gabe, aztergai ditugun ikerlanen edukia ezagutzera ez baikara iritsi, fitxen jasotako erreferentzien bitartez ez bada. Baina, hemen deskribatzen ari garen lanez gain, beste egoera batzuetan ere lanketa teorikoaren hutsunea begi bistakoa izan ohi da eta, hipotesi gisa bada ere, esango genuke dimentsio teorikoak ez direla eskuarki jorratzen euskal soziolinguistikan.¹⁰

5. Euskarak gizartean duen egoeraz —*status delakoaz*— kezka duten ikerlanak nagusitzen dira -lautik hiru- *euskal ikerkuntza soziolinguistikoan*. Horri lotuta, ikerlan gehien-gehienek, izaera akademikokoak edo aplikatukoak izan, euskarri berean dituzte abiapuntu eta sostengu: euskara normaltzeko asmoan, hain zuzen. Izan ere, bai ikergaiak aztertzean, bai ikerlanen bultzagile edo suspertzailen jatorriari erreparatzean, argi dagoena hau da: ez dela hesi garbirik mota akademikoko eta aplikatuko lanen artean. Ez dago jakiterik horietako askoren azken asmoa eremu akademikora mugatzen ote den ala, giro horretan sortuak izan arren, beren azken jomuga dimentsio aplikatukoa ote den.

6. Hortaz, aintzat hartzen bada -arestian esan bezala- hemengo ikerkuntza gehienbat interbentzioari begira planteatu ohi dela, ulergarriagoa —ez, hala ere, justifikagarria- da erreferente teorikoek gure ikerketa soziolinguistikoan duten muga. Gabezia horrek ez du batere lagunduko euskal soziolinguistikaren metatze eta garapen zientifikoari, horren ondorioz ikerlan asko dituzten nahi eta ahalmen eraldatzaileak mugatuta gelditzen direlarik.

Nolanahi ere, esan daiteke gertaera horren arrazoia lan asko praktikatik -ez teoriatik- abiatuta izatea da, hau da, helburu aplikatua baino ez dute. Gainera, mundu akademikoak sarri mespretxatu, gaitzetsi edo albo batera utzi duelako ideia ere zabaldu da, eta horrek ba ditu bere ondorioak; egokia litzateke, akaso, euskalgintza praktikoaren eta lan teorikoa egiten dutenen arteko **elkarlan handiagoa** egitea, helburu mota biek aurrera egingo badute.

7. Ikerlanen bilakaerak goranzko joera nabarmena erakusten du 2007-2013ko denbora tartean. Badirudi ikerkuntzaren funtsa diren

**Euskarak
gizartean duen
egoeraz —*status
delakoaz*—
kezka duten
ikerlanak
nagusitzen dira
lautik hiru euskal
ikerkuntza
soziolinguistikoan.**

**Aintzat hartzen
bada arestian
esan bezala
hemengo
ikerkuntza
gehienbat
